

Beste aurrerapauso bat arrantza iraunkorraren alde

EROSKI -K BIKOIZTU EGIN DU ATUNAREN IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO AHALEGINA, ARRANTZA IRAUNKORRAGOA EGITEN DUTENAK ALDEZTUTA

- Kooperatiba akordio batera heldu da hornitzaileekin, %40 handitzeko atuna era arduratsuagoan arrantzatzen dutenei erosten dien kopurua: APR, FAD objekturik gabe, MSC eta FIP, bi urtean
- Arrantzaren Eskualde Erakundeetako bandera duen ontzietatik etorri behar du EROSKIren atun kontserbakoa
- EROSKI lanean ari da arrantza iraunkorraren politika sinatu duten hornitzaileekin; hornitzaile horiek ez dute onartzen Thailandiatik eta halako herrialdeetatik datorren atuna; izan ere, EBk txartel horia ezarri die, ez baitituzte betetzen Eskualde Erakundeek onartutako neurriak
- Kooperatibak kanpoko ikuskatze programa bat dauka, AZTIk eta MRAG Americasek daramatena, bermatzeko bere apaletako atun kontserba era iraunkorrean harrapatua izan dela

Elorrio, 2018ko apirilaren 24a.- [EROSKI](#)k beste pauso bat eman du atunaren iraunkortasunaren alde, eta hornitzaileen arrantzatzeke eran jarri du begia. Hala, bere atun kontserba guztia jatorri iraunkorrekoa dela bermatzen du, eta, gainera, dauden hiru arrantza modurik arduratsuenekin harrapatuak: APR, FAD objekturik gabe, MSC eta FIP. Alde horretatik, hitzarmen bat egin du bere hornitzaileekin, era horretara harrapatutakoa izan behar duela atunaren %40. Hala, kooperatibak pauso bat eman du arrantzalekuen kontserbazioan, eta bere bezeroek kontsumo iraunkorragoa egiteko modua dute.

Orain duela urtebete baino gehiago, EROSKI hitzarmen bat egin zuen bere atun kontserben hornitzaileekin, kooperatiba hornitzekotan [ISSF](#) Arrantza Iraunkorraren Nazioarteko Fundazioaren printzipioen arabera horni dezaten.

EROSKI lanean ari da arrantza iraunkorraren politika sinatu duten hornitzaileekin; hornitzaile horiek ez dute onartzen Thailandiatik eta halako herrialdeetatik datorren atuna; izan ere, EBk txartel horia ezarri die, ez baitituzte betetzen Eskualde Erakundeek onartutako neurriak eta ez baitute neurririk hartu legez kanpoko arrantza amaitzeko.

"Gure arrantza politika iraunkorraren hamaika printzipioek modu argian egiten dute arrantzalekuen iraunkortasunarekin eta giza eskubideekin arduratuta eta konprometituta dauden arrantza ontzidien alde. Eskuz esku lanean ari gara ISSF duen

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

atun ontzidiarekin, zertarako eta iraunkortasunean aurrera egiteko eta gure eskaintzan ingurumen bermeak izateko", esan du EROSKIko Osasunaren eta Iraunkortasunaren zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak

Orain beste helburu bat jarri dio EROSKI bere buruari: handiagoa izatea sarda librean arrantzatutako atuna (eta ez FADen bitartez), hala nola kainaberarekin eta AENORen, FIPen eta MSCren APR ziurtagiriarekin (APR: Erantzukizunez Arrantzatutako Atuna). Hala, AENORena, FIPena edo MSCrena izango da ziurtagiri hori, eta bermatuko du itsasoko baliabideak era arrazionalen ustiatzen direla.

"EROSKI konpromiso irmoa dugu kontsumo arduratsuen alde. Horrela ageri da [Osasunaren eta Iraunkortasunaren](#) aldeko dekalogoan; orain berriki aurkeztu dugu dekalogo hori, eta hor dator bizi kalitatea hobetzeko eta kontsumo iraunkorra sustatzeko xedea hartu dugula. Alde horretatik, lanean dihardugu kontsumitzaileari alternatibak eskaintzeko, elikadura orekatua eta arduratsua izateko bidean, eta ildo horretakoa izango da gure dendetan merkaturatuko dugun atuna", esan du Martinez Berriochoak.

Era berean, saltokietako atun kontserba guztiaren iraunkortasuna bermatzeko, kanpo ikuskaritza programa bat du martxan kooperatibak [AZTI](#)rekin eta [MRAG Americas](#)-ekin, bere hornitzaileek ISSF iraunkortasun ebazpenak eta neurriak betetzen ote dituzten begiratzeko.

Txikizkako lehen banatzailea, MSC ziurtagiria eskuratu zuena

2010. urtean, EROSKI izan zen Espainiako lehen banatzailea, bat egin zuena [WWF](#) erakundeak sustatutako Arrantza eredu Iraunkorrarekin; ekimen horren helburua zera da, saltokietako arraina eta itsaskia jarduera iraunkorren bidez arrantzatua izatea ingurumena errespetatuz.

Ildo horretan, 2016an, EROSKI izan zen Espainiako txikizkako lehen banatzaile katea, MSC [Marine Stewardship Council](#) nazioarteko erakundearen ikuskaritza bat gainditu zuena arrantzaileko iraunkorretako arraina merkaturatzeko. Abakandoa da produktu berri horietako bat, eta bakailao gezatuaren eta surimiaren erretiluak dira besteak; horiekin batera, hor egongo dira arraindegiko apaletan lehendik MSC ziurtagiriarekin saltzen zituenak: Skrei bakailaoa, Kantabriako antxoa eta hegaluzea, denak ere marka propiokoak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)